

Lapurtutako haurren eta adopzio irregularren kasuak Euskadin

EUDELeK elkartasuna adierazten du, eta eragindako pertsoneri laguntzeko eskaera egiten die Euskadiko udalei

Bilbon, 2012ko martxoak 23. EUDELe Batzorde Agintariak Euskadiko adopzio irregularren eta lapurtutako haurren kasuei buruz martxoaren 15ean hartutako Akordioaren arabera, Euskadiko Udalen Elkarteak elkartasuna adierazten die eragindako pertsoneri, eta udalei zirkular bat bidali die, ahal duten neurrian gertaerak argitzeko laguntza eman dezaten eskatuz.

EUDEL erakundeak SOS Haur Lapurtuak Euskadi elkartearekin egin du lan azken asteotan, arazoak zuzenean ezagutzeko asmoz, eta irtenbideak eta lankidetzarako bideak prestatu ahal izateko.

Asociación de Municipios Vascos / Euskadiko Udalen Elkarte, EUDELe Akordia

LEHENENGOA.- Aurreko hamarkadetan zenbait ama biologikori haurrak lapurtu edo legez kanpoko eran kendu zizkieten kasuetan kalteak jaso dituzten pertsoneri adiskidetasuna eta elkartasuna adieraztea.

BIGARRENA.- Gertakizunak argitzeko asmoan babesa ematea, eta erakunde arteko lankidetzan parte hartzeko nahia agertzea, kalteak egia jakiteko eta kalte-ordaina jasotzeko duten eskubidea bermatzeko.

HIRUGARRENA.- Deialdi hau Euskadiko udal guztiei helaraztea eta, zehazki, honako neurriak hartzeko gomendioa helaraztea udalei:

1. Gainerako erakundeekin aldeko eta elkarkidetzazko jarrera erakustea, gertakizunak argitzea bermatzeko asmoz, eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzan sortzen den Ikerketa Batzordearekin elkarlanean aritzea, aipatutako Batzordearen helburuak bete daitezen.
- 2.- Kalteak egia jakiteko edo horiek biltzen dituzten elkarteak sartzea ahalbidetzea udalerrian aurretik egondako amaetxe edo klinika pribatuaren dokumentu eta erregistroetara.
3. Kalteak egia jakiteko edo horiek biltzen dituzten elkarteak aurkeztutako informazio-eskaeren izapideak bizkortzea, eta hilerrietako dokumentu, artxibo edo erregistroetara sartzea ahalbidetzea, zehatz-mehatz, erditze-liburuetara eta haur-liburuetara, indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorritik.